

2024ko maiatza



Gerundioaren erabilera okerra

OHARRA: asteriskoz* eta *kurtsibaz* idatzitakoak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.

Euskaraz ez dugu inguruko hizkuntzen gerundioaren parekorik: horren ordez beste baliabide batzuk erabiltzen ditugu. Hala ere, erdaren eraginez, baliabide horiek ez ditugu beti zuzen erabiltzen. Beraz, adi gerundioarekin!

GERUNDIO OKERREN ERAGINA EUSKARAN:

1. HELBURUZKO ERDAL GERUNDIOA

- “*para*” ordezkatzeko erabiltzen da eta oker dago, helburuzko egitura ordezkatzen duelako. Beraz, ez erabili -tuz, -(e)larik... erdal gerundioaren okerrak ordezkatzeko.
 - * *Les envío esta carta solicitándoles un informe exhaustivo.*
 - * *Gutun hau bidaltzen dizuet txosten zehatza eskatuz.*
 - Gutun honen bidez txosten zehatza eskatu nahi dizuet.

2. ONDORIOZKO EDO GEROALDIKO ERDAL GERUNDIOA

- Gerundioa ezin da erabili aditz nagusiaren ekintzaren ondorengo gertakariak adierazteko:
 - * *Onartutako izangaien behin-behineko zerrenda argitaratu da, gutxienez zazpi egun naturalekoa izango den arrazoibideak aurkezteko epea zabalduz.*
- Horien ordez, hainbat aukera balia ditzakezu: “eta” juntagailua, elipsia, edota lokailuren bat erabili.
 - Onartutako (...) zerrenda argitaratu da, eta (...) epea zabaldu da.
 - Onartutako (...) zerrenda argitaratu eta (...) epea zabaldu da.
 - Onartutako (...) zerrenda argitaratu da; horrekin batera, (...) epea zabaldu da.

3. ADJETIBOZKO GERUNDIOA

- Adjetiboarena egiten du gerundioi honek, eta okerra da erdaraz, baldin eta aditz nagusia ez bada pertzepziozkoa (ikusi, entzun, sentitu...) edo errepresentaziozkoa (marraztu, deskribatu, idatzi...).
- * *Alkateak dekretu bat eman du denden ordutegia arautuz.*
- Alkateak dekretu bat eman du denden ordutegia arautzeko.

4. ESALDI JUNTATUEN ORDEZKO GERUNDIOA

- Zenbaitetan, bi esaldi edo gehiago juntagailuz lotu beharrean gerundio baten bidez lotzen ditugu. Gerundiozko aditzek, ordea, ez diote erreferentziarik egiten aditz nagusiari; horregatik, hobe testuak puntuazioaz eta juntaduraz moldatzea.
 - *Deialdi hau eta bere Oinarri-arauak oso-osorik *argitaratuko dira* Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, Estatuko Aldizkari Ofizialean *laburpen zehatz bat argitaratuko delarik*.
 - Deialdi hau eta bere Oinarri-arauak oso-osorik *argitaratuko dira* Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta, gainera, Estatuko Aldizkari Ofizialean *argitaratuko da* laburpen zehatz bat.



Ohiko erdarakadak: mantendu



*** *Arduradunaren esanetan, elkarrizketak MANTENDUKO ditu langileekin.***

Arduradunaren esanetan, elkarrizketak IZANGO ditu langileekin.

Mantendu aditzak bi esanahi ditu:

- a) elikatu
- b) zerbaitek bere horretan iraun.



Egin kontu!

EUSKARAZ BAI, BAINA NOLA?

Hainbatetan ikusi ditugu euskarazko itzulpen desegoki eta xelebreak gure inguruan: lantokietan, obretako seinalizazioetan, dendetako eskaparateetan... Baina, ba al dakigu itzulpen horiek zergatik dauden gaizki eta nola zuzendu?

Horretarako sortu dugu *EGIN KONTU!*, eta zuen laguntza behar dugu atala elikatzeko. Inguruan ikusten dituzuen kartel, mezu, edota idatzi desegokiak bidali eta zuzen nola idatzi behar diren azalduko dizuegu. Noski, jatorria eta egilea isilpean mantenduko ditugu, helburua akatsetatik ikastea da eta!

BIZILAGUNAK IZAN EZIK

ez ezik $\neq$ izan ezik

Adibide honetan ez datoz bat euskarazko eta gaztelaniazko esaldiak; are gehiago, kontrako esanahia dute:

- “*bizilagunak ez ezik*”: bai bizilagunak, bai gainerakoak

Excepto residentes esan nahi badugu:

Zain dezagun euskara!

